


Astekaria

BARREN

elgoi



San Frantzisko, 40 - Tel. 74 06 87 - ELGOIBAR



IRUDIA - SOINUA
ELEKTRAGAILUAK

Berehala

ARTEGI

BEHERAPENETAN

AURKIBIDEA

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
Ondo bizitzea
- 6 ERREPORTAIA**
Heldu da astebukera
- 8 ASTE HONETAN**
Beharrezkoa al da edatea ondo pasatzeko?
- 16 BERBETAN**
Maria de los Bueis: 100 urte sekreturik gabe
- 17 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Justo Juaristi (Artazo II)
- 18 KIROLA**
Elkarrizketa: Oihana Chico
Urasandiko Futbito Txapelketa
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**
Taupada: Taula gainean bihotz kolpeka
- 21 KULTURA**
Gurasoak hezitzen

PREIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdia	...461111
Txanda hartzeko	...743354
Alkoholiko Anonimoak	...740385
D.Y.A (anbulantzia)	...464622
Gurutze Gorria	...743864
Mendaroko Ospitala	...756264
Drogomenpekotasun Z.	...741008
Odol Emaileen elkarte	...743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	...740442
PESA (Eibar)	...112131
Taxi Geltokia	...740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	...744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	...742158
Mendaroko Udala	...756100
Ongizate zerbitzua	...743736
Udaletxea	...741050
Udaltzaingoa	...741394

BESTELAKOAK

Caritas	...740142
IMI	...741196
Kontsumo Bulegoa	...743088
Liburutegia	...743525
Musika Eskola	...742145
Mintxeta	...744315
Polikiroldegia	...741361
Postetxea	...741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	...740296
Zaharren Biltokia	...740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	...74 08 79
I.M.H.	...74 41 32
Institutua	...74 02 67
Ikastola	...74 44 41
L.H.I.	...74 31 00
Pilar Ikastetxea	...74 13 31

farmaziak

- 29, larunbata: Bidasolo
30, igandea: Bidasolo
31, astelehena: Yudego
1, asteartea: Yudego
2, asteazkena: Yudego
3, osteguna: Yudego
4, ostirala: Ormazabal

okindegia

30, igandea:
BOUTIQUE DEL PAN



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRATIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Ondo Bizitzea

Autoaren, etxebizitza moeta eta tamainuaren nahiz etxeko tresneriaren arauera neurtu ohi dute soziologo askok ongizate izeneko hori. Bai eta guk geuk ere, errebotez bada ere, geure irabazpidea ongizate maila horietara hurbildu nahirik.

Norbere baloreekin bat datorren ala ez alde batera utzi eta, aitor dezagun oraingo egoera ekonomikoak zaila jartzen duela norabide hartan behinik behin bizimodua hobetzea.

Balegoke, halere, sosik gastatu gabe hobeto bizitzea, zenbait ohitura berriri helduz, esate baterako, gure osasunaren alde zerbait gehiago eginez, lo gehiago eginez nahiz hobby edo zaletasunen bati arreta handiagoa eskainiz.

Zorioneko stressa oztopo garrantzizkoa izan liteke baina hura ere ahul dezakegu, **norberak hala nahi izanez gero behintzat.**

Hartarako giltzarri batzuk aipatuko nituzke nik hemen:

Barre asko egitea. Makina bat txiste, txantxa, lerdokeria eta jende serioa dago gure zain. Norbera ere nahiko

barregarri gertatu ohi da batzuetan pittin bat kanpotik begiraturaz gero.

Norberaren antzeko jendearekin noizean behin elkartztea, hemengo zein hango kide eginez nahiz lagun batzuekin besterik gabe berriketa eginez.

Egunean tarteren bat ezer ere egin gabe (ez eta irakurri, hitzegin edo telebista ikusi gabe ere) **ematea.** Ordubeteko bost minutu ?

Baliteke, halere, norbere zereginak garrantzizkoegiak eriztea eta honelako pausurik aurrera eramanez ezinik sentitzea. Historiak gure ahaleginak eskertuko dizkigun itxaropena geratuko zaigu halakoetan. Nolanahi delarik ere, azken saio bat egin liteke, shock gisa edo, egunerdi batez Mendaroko Ospitalera osteratxo bat egin, hango pasabideetan pixka batean ibili eta laster azalduko da, berez, ezagunen bat edo beste. Han zer dela eta dagoen edo dauden galdetzeko interesa erakutsi eta arretaz entzun. Efectua egin ohi du.

Alfonso Guilló

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Zergatik ez da Koldo

Lizarralderen liburua euskaraz (ere) argitaratu?

- Koldorekin egon gara eta hara erantzuna:

"Hala da, baina Telesforo de Aranzadik, gure maisu handiak zioen legez: 'beste batzuk hobeto egin dezakete, baina, nik neuk egin dut'".



KEXAK

• Salsa ikastaroan dabiltzan bi neska gaztek deitu digute.

Institutuko gimnasioaren aurrealdean ez omen dago batere argirik eta asperturik omen daude muturrez aurrera ez jausteko metxeroarekin hatzaparrak erretzen ibili beharrez.



TXALOAK

• Koldo Lizarralde, idatzi duen liburuagatik, eta Gabonetako jaiotza erraldoia egin dutenak zoriondu nahi nituzke egin duten lan bikainagatik.

Huelga bezperako burutazioak

Penia daukat idazten dakidan baino gehixao ez jakitziagatik, baina zer egingo deu ba! Danok ez gendun eskolan ibiltzeko suerterik euki! Hala ere, BARRENEk ematen digun aukera eder hau aprobetxatu nahi dot hilaren 27ko huelgiari buruz pare bat gauza esateko.

Izan da astian zihar nahi baino zarata gehixao. Batzuek alde, bestiak kontra; batetik derrigorra dala Feliperi kastigua ematia, bestetik, daon krisisakin huelgia kalterako dala. Asko ez dakigunontzat ez da batere erreza horrelako kasuetan zer egin bihar dogun erabakitzia.

Ez dakit huelgia generala izango dan ala ez. Elgoibarren paruan zenbat dauden kontutan eukitxa, langile gutxi batzuk huelga itxen badabe, nahiko generala izango da (ez da broma, gauzia serixua da eta). Generala izanda ere, aldatuko ote dira gauzak? Bildurtuko al da inor?

Dardaran jarriko al dira gizon haundixen poltronak? Ez dot uste.

Krisi egoera honek erresponsable batzuk dauzka, bai hemen eta bai Espainian ere. Zergatik ez dou ahalegintxo bat eitxen horrek dauden tokitik kentzeko? Ez al dago inor horrek baino hobeto eingo dabanik?

Huelgia generala bada ere, hurrengo elekziuetan baietz danok botua berdinari eman? Pertsonak aldatzen ez ditugun bitartian ez dira gauzak aldatuko. Aspaldi esan naban nik martxa honetan ez gendula gauza onik ikus bihar. Behingugatik asmatu dotela uste dot.

M.K.J.

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak soilik agertuko dira.



HERRI-GAIN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Edozer iragarri
edo eskertu nahi
baduzu **BARREN**
da leku
aproposena.
Elgoibar eta
Mendaroko
3.200 etxetan
gaude.

74 41 12



Aste honetako erretratua ere **Ongarik** bildu eta **Udal Liburutegi-koek** lagatakoa da. Gaurkoarekin amaiera emango diogu Juan Mugerzaren oroimenez antolatzen den krosari buruzko argazki zaharren bildumari. Datorren urtean ere izango da zerbait!

Aste honetako erretratua benetan zaharra da. 1919. urtean ateratakoa da, hain zuzen ere.

“Fronton kamiñerokua” restaurantearen aurreko

aldean ateratakoa da (gazteok galdetu gurasoei kamiñerokua non dagoen). **Juan Mugerzari** (zuriz jantzi-ta dauden bi emakumeen erdian dagoena) egin zioten omenaldi batean atera omen zuten erretratu xelebre hau.

Erretratuan daudenen izenak ematerik ez badaukagu ere, benetan polita da orduko elgoibartarrek zer-nolako itxura zuten ikustea.

Non harrapatu ote zituzten hainbeste kopa diferente!

ASESORIA
GOAR

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK


San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

LANBROA



Heldu da astebukaera

“Fiebre del sabado noche” ikusi duenari ere gutxi irudituko zaizkio Travoltaren “juergak” Elgoibarko San Frantzisko kalean, larunbat arratsaldean, ikus daitekeenarekin konparatuz. Nagusiagoek diotenez, garai bateko larunbatetan askoz gehiago edaten zen eta juergak ere amaitezinak izaten ziren. Gaur egun hainbestearainokoa ez bada ere, larunbat arratsaldero, ondo pasatzeko gogoia duten milaka gaztez betetzen da San Frantzisko kalea.



■ ■ Herriko eta kanpoko gazteez betetzen dira kaleak.

Gazteen artean erabat hedatu da larunbat arratsaldeak taberna zuloetan edaten, dantzatzen eta ahal bada, begiz jotako neska edo mutilarekin ligatzen ematea. Astero astero 14 eta 20 urte bitarteko gazteez betetzen dira gure herriko tabernak. Fenomeno honek gurasoak, batetik, eta tabernari eta

gazteak, bestetik, aurrez aurre jarri ditu. Gurasoak, seme-alabak hain gaztetik alkohola edaten ikusten dituztenean asaldatu egiten dira. Tabernariak ez dira auzi honetatik kanpo geratu eta Udalak ere parte hartu behar izan du. Duela gutxi tabernari eta Udaleko agintarien artean izandako bileretan, tabernako komunak irekita edukit-



Juanjo Bernal
MALAPE TABERNAKOA

Gazteen eta alkoholaren gaia oso konplexua da. Larunbat arratsaldetan jendetza etortzen da herrira. Normala da Elgoibarrek daukan egituragatik. Kale bakarra dago, diskoteka bat balitz bezala. Elgoibarren 3.000 gazte elkar daitezke arratsalde batean. Hemen arratsaldean ez agian baina larunbat gauean, jende mordo bat elkartzten da isterako orduan. Arratsaldean gutxiago, baina jende asko

hala ere. Hona etortzen den jendea herrikoa da batez ere. Era guztietako musika jartzen dugu, pop eta rock-a asko, eta bolumena ez da oso altua. 16 urtetik beherako jende asko ez dabilela esango nuke. Ikuspuntu komertzialetik ondo dago jende asko etortzea tabernak larunbatari esker bizi baikara. Sozialki, ordea, ez dago hain ondo.

Alde txarrik? Jendeak orokorrean jokabide ona dauka eta izorratzera

datozenak oso gutxi izaten dira. Ez dugu inoiz istilurik izan tabernan. Txarrena agian bizkorregi lan egin behar duzula da eta gazteek alternatibarik ez dutela ikustea.

Edariari dagokionez, lehen gehiago edaten zen, konbinatuak batez ere. Orain zerbeza asko edaten da. Duela 8 urte larunbat arratsalde batean 10-14 ardo kaxa edaten ziren, gaur egun, berriz, 6 kaxa. Orain ur gehiago edaten da, eta alkohol gutxiago.



Agustín Alonso
LANBROA TABERNAKOA

Tabernetan gaozenak gazteek eskatzen digutena ematen dogu. Oraingo gazteek diru gutxi daukate, lehen gehixao ibiltzen ginan. Danetik edaten da, mostua eta sagardua pila bat. Ardua asko jeitsi da. Lehen doblia edaten zan. Hainbeste jenderen artian mozkortzen dianak egongo dira baina askok hartzen dabez litronak eta itzeleko mozkorrarekin amaitzen dabe. Baina gutxi izaten dira. Gainera, edadia asmatzea ez da erreza.

Astebukaera batzutan karnetak eskatu izan ditut. Nik uste dot danok zaintzen dogula adinan kontua baina askotan ezin leike kontrolatu. Hemen Elgoibarren ambiente bat sortu da, tabernak diskoteta anbulanteak dira, eta denak daukagu musikia topera. Jendeak eskatzen dizuna eman behar dozu. Larunbat arrasaldetako kenduta, taberna asko larri ibiliko zian. Dana dala, bere alde positiboa ere badauka: Arratsaldetan herriko jendea goiko aldean

ibiltzen da eta horrek bizitasuna ematen die goiko tabernei.

Larunbat arratsaldetako zoratzekua da. Hemen, sei kamarero barra ostian, bi basuak batzen eta beste bat atean eukitzen dot. Bederatzi danera. Eta problema pilo bat. Burrukak astero astero, pintadak taberna barruan, bajila apurtu... Udalarekin ere egon ginan eta komunak zabalik eukitzeko eskatu ziguten. Zoratzekua da, baina guretzat biharrezkua.

zea erabaki zuten. Dena den, Elgoibarren larunbat arratsaldetan gertatzen dena ikerketa merezi duen fenomenua da, bai-larako milaka gazteren gune bihurtu baita.

Herritarrez gain, kanpotarrak

Ehundaka gazte etortzen dira larunbat arratsaldero, gurasoen begiradatik urrun eta tabernen iluntasunaren anparuan basoerdi batzuk hartzera. Autobusean, trenean, autoan zein stoppean, dena da balekoa. Garrantzitsuena, ahalik eta goizen, San Frantzisko kaleko tabernetan zehar lehen erronda egitea da. Lehendabiziko bisitariak 3,30ak edo 4ak ingururako herrian izaten dira. Askok autobusez etortzen dira. PESAk orduero dauka Eibartik zerbitzua. Autobuskada bakoitzean, 100 gaztetik gora etortzen dira.

PESAko gidariek arazo ugari eduki izan

dituzte Elgoibartik bueltan doazen gazteekin. Istiluak zirela eta, Maalako autobus geltokitik ez da autobusik ateratzen arratsaldeko 7ak geroztik. Ordu honetatik aurrera Sigmatik ateratzen dira autobusak.

Gehiegi edandakoak

Jakina da guztiontzat 14 eta 20 urte bitarteko gazteek gehiegi edaten dutela batzuetan. Larunbat arratsaldetan, hankak ezin eutsi dagoen gazte bat baino gehiago ikustea tokatu zaio askori. Gurutze Gorrian esaterako, larunbat arratsaldero atenditzen dituzte gehiegi edan duten bizpahiru kasu. Dena den, iaz askosaz kasu gehiago izan zituzten eta udaberri, uda eta jai sasoian intoxikazio kasuak gehiago izaten dira. Gaztetxoek Gurutze Gorrira jotzen dute mozkorraldia bapatean kenduko dion zerbaiten bila. Baina erre-



■ ■ Gurutze Gorrikoen arabera, udaberri, uda eta jai sasoian intoxikazio kasuak gehiago izaten dira.

medio bakarra paseatu eta denbora pasatzen lagatzea omen da.

Ertzantzaren komisaldegitik esan digutenez, duela bi urte edo, istiluak sortu ziren larun-

bat iluntzean Eibar eta Ermurako trenean. Ordu-tik Elgoibarko tren geltokian eta tren barruan ere, Ertzain bikotea egoten da zelatan istilurik gerta ez dadin.



**AITZ BIZKAR
ARDOAK**
ARDO ETA PATTARRA
PATATA SALMENTA
Etterainoko
banaketa
Errosario 18
☎ 74 02 37

Fotero
OKINDEGIA
OPILEDGIA
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA
BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

UDA BERRI
ELGOIBAR



IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdia
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86

ASTE HONETAN

Beharrezkoa al da edatea ondo pasatzeko?

Elgoibarko sapatu atsaldetako errito postmodernoa dugu: **“homo consumens”** (E. Fromm), kontsumoaren bidez egindako **hedonistak** (A. Glucksmann), hutsunearen aroko **nihilistak** (G. Lipovetsky), **“Jainkoa hil da” ateo nihilistak** (F. Nietzsche), **“No future” kanta** (Ramoncin **“el rey del pollo frito”**), **“litros de alcohol”-ez blaitutako seme-alabak.**

Desira, gozamina eta komunikazioa dituzte balorerik garrantzitsuenak. Gorpuzko ardura. Ezin dotoreago prestatzen dira Eibarren bazkalostean. Paga poltsikoratu. Trenez eta autobusez datoz. Pila bat dira, inurriak legez, ezin da buruan sartu ere egin! Laurak eta bostak bitartean Elgoibarko kaleak zeharo **“hartuta”** dituzte. Hizkuntza? erdara traketsa. Asmoak? ligatu eta mozkortu (eurok ondo pasatzera datozela esango dizute: **“carpe diem”**, moral hedonista, atsegin ttipiena). Ondorioak? mozkorrak, ahotik botakak, zoriontasun efimeroa, eta hutsunea; ah!! eta hurrengo sapatuak irrika! **“Aurea mediocritas”** Horacio zaharrak deituko luke. J. Atxabalen esanetan, gozatu bai, baino inorekin konprometitu gabe; grinak agertaraztea, edo maitasuna erakustea edo negar egitea, ez dira ondo ikusten.

Tabernari gazteek alkoholdun, alkoholgabedun eta konbinatuak prestatzen dizkiete (mostoa cointreau-rekin, litronak,...) taberna jabeen esanetara negozioa eginez (edarien zergak direla medio, edo aitzakiaz, %500 garestiagora salduz) 5 mila pezeta edo poltsikoratzearen truke. Hamurabi kodearen arabera, K.a. XXIII. mendean, gazte txoei zerbait saltzea galerazia zegoen, 4.300 urte geroago negozioa egiten dute beraien kontura. Tartean elgoibartarrekin nahastuz, inork ikusten ez duen, baina hor nonbait dabilen speed droga berri buru izorratzaileak demase-

ko **“estragoak”** eragiten dizkie batzuei.

Ez zaitez harritu, elgoibartarra, nere iritzi honen kritika pesimista irakurtzean: Elgoibarko industri-kapitalismoak ekonomi-merkatua bultzatuz, kontsumo-sozietate hedonista erdalduen batean murgildu gaitu. **“Euskara”** buruan, erdara ahoan, familia kristauen baloreak erasotuak eta higatuak. Aberzaleak bigundu edo burgestu egin gara (dena diruarengatik eta diruarentzako, erosotasuna, solidaritate eza). Kristautasunak ekarri zizkigun baloreak galtzen doaz poliki-poliki (hurkoarenganako axolagabekeria eta esperantza eza). Etika hedonistak konpromezu eza inplikatzeko du: ez elizak, ez alderdiak, ez gizakiak, ez historiak,... (post-historiaren ezaugarriak baino ez dira).

Guzti honen ondorioz, Elgoibarren garai bateko txikiteoak zartada izugarria jasan du sapatutan, azken urte hauetan batez ere. Gazte txoei **“diskoteka light”** eta horrelakoak jartzen dizkiete, kontsumo-gizarte hedonistan sozializatzeko ohiturak sortarazi asmoz. Sozietate gastronomikoen kultura kontsumista salatzea ere, ez dator batere gaizki, gurasoen kontzientziak ia astintzen diren! Zein da zuen seme-alabei agertzen diezuen irudia eta itxura? Gurasook ere, gaztetan mozkortzeari balorea eman zenioten, ala? Eta zuek gazteok, zer pentsatzen duzue guzti honetaz? Izan zaitezte behingoz kritikoak!!



IÑAKI URIBE

Beharrezkoa al da edatea ondo pasatzeko?



Jaione Zabala
27 urte, langabetua

Moderazioarekin bai, baina gaztetxoak edatea ez zait ondo iruditzen. Tabernetan gehiago zaindu beharko lituzkete gazteak.



Mikel Cornejo
22 urte, ikaslea

Bakoitzak bere dibertitzeko era aurkitu bihar dau. Alkohola bihar dabanak edan dezala. Bakoitzak ikusiko dau non dauan neurrixa.



Kizkitza Oiarzabal
18 urte, langabetua

Orain speed, tripi eta bitxo pilo bat jaten dira eta alkohola gutxienekoa iruditzen zait. Alkohola arinena da beti ere, adin batetik aurrera.



Gemma Monreal
33 urte, margolaria

Ez da beharrezkoa, noski. Norberaren umorea alkohol eta drogarik gabe nahikoa dela uste dut. Ez dut edaten eta mozkorren aurka nago.




Javi Sanchez
29 urte, langabetua

Ez dut uste beharrezkoa denik baina jendeak edan egiten du, asko gainera. Argi dago edatea gustatzen zaigula. Alternatibarik? Zaila.



Alberto Iriondo
28 urte, irakaslea

Elgoibarren ez dago gauza handirik eta ohitura gainera edatearena da. Zaila izango da aldatzea. Igual Udalak zerbait egin beharko luke.



Aterpe
Taberna

Tel: 74 25 95

 *Afari merkeak*

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Hemendik aurrera
EGUNEROKO MENUAK
650 pta.

Aurrez enkargatu ezkerro, hobe!

Logopedia Zentroa



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR

■ Udal plenuak zorraren berfinantzaketa onartu du

Udal plenuak Gipuzkoako Kutzari eskatutako kredituaren berfinantzaketa aho batez onartu zuen joan den astean egindako plenuan. Udala eta Gipuzkoa-Donostia Kutzaren artean sinatutako akordioari esker 40 milioi gutxiago gastatuko ditu Udalak. Hau horrela izango da aurrezki kutxa honek interes tipoak jeitsi baititu. Udalak eskatutako kredituaren zenbatekoa 622 milioitakoa da eta 10 urteren buruan ordaindu beharko du 8,8ko interes tipoarekin.

■ AEKren sinadura bilketa

AEKk zenbait ekintza burutuko ditu datozen hilabeteotan Euskal Autonomi elkarteak euskaltegi libreek jasaten duten diskriminazioa salatzen. Izan ere, aurten laguntzarik gabe geldituko dira 17.780 ikasle. AEKri 100 milioi pezetako dirutza suposatzen dio laguntzak.

Elgoibarko AEK euskaltegiak aipatutako ekintza horietako lehenengoa, datorren ostiralean, hilak 18, burutuko duen sinadura bilketa izango da.

Grebak erantzun zabala izan zuen Elgoibarren



Sindikatu nagusiek hilaren 27rako deitutako greba orokorraren deialdiak erabateko erantzuna izan zuen Elgoibarko hezkuntza zentruetan. Ikastolak eta Herri Eskolak greba egin zuten eta hezkuntza ertainean, IMHK, Lanbide Heziketarako Institutuak eta Batxiller Institutuak ere lanuztea egin zuten.

Berri hau idazterako orduan, sindikatuen aurreikuspenak, erabateko lanuztearen aldekoak ziren industri eta merkatal ihardueretan.

Era berean, sindikatuek dendak isteko eskaera egin zieten herriko merkatariei.

Hilaren 27an, CCOO eta UGT sindikatuek Bilbon burutu zituzten hainbat ekintza eta ELA eta LABek, berriz, Donostian. Greba, lau sindikatu nagusiek deitutakoa izan zen eta Gobernuak aplikatu nahi duen Lan Erreformatarako lege berriarekin ezadostasuna agertu nahi izan zuten lanuzte egunarekin.

SANTA AGEDA ESKEA 93

OTSAILAREN 4an, OSTIRALA.

EGITASMOA:

- 8,30: Plaza Handian
- 11,00: SAN MIGELEN (Hamarretakoa)
- 14,00: SAN PEDRON (Bazkaria)
- 19,00: SAN LORENTZOn
- 20,00: PLAZA HANDIAN

KOPLARIAK:

- German Meabebasterretxea
- Ziarda

TRIKITILARIAK:

- Zabaleta eta Iker

(Batetik besterako joan etorriak autobusez egingo ditugu)

BATZARRA: Joan nahi duzutenontzat otsailaren 2an arratsaldeko 7etan Elkarteak Ubitartean duen lokalean bilduko gara azken ikutuak emateko. Informazio gehiago 74 16 26 (Imanol)

ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



LAGUNTZAILEAK: ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





AITOR ZABALA

Comisiones Obreras (CCOO) sindikatuak egoitza berria inauguratu zuen joan den larunbatean. Ekitaldian herriko alkatea Jose Inazio Elkoro-Iribe eta beste agintari batzuek hartu zuten parte. Gogoratu hemendik aurrera CCOO sindikatuak Errosario kaleko 14an izango duela egoitza berria. Argazkian, Santiago Bengoa CCOO-eko Idazkari Nagusia, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea eta Ovidio Campeyo CCOO-eko Gipuzkoako Idazkari Nagusia.

■ Txistu kontzertua

Igandean, hilak 30, Udal txistulari taldeak eta Inazio Bereziartua musikeskolak ikasleek kalejiran zeharkatuko dituzte kaleak goizeko 10,30etan hasita. Eguerdiko ordubatean, kontzertua eskainiko dute udaletxeko arkupeetan, Candido Albistur, Isidro Ansorena, Bruno Imaz eta Sabin Bikandiren lanak joko dituztelarik.

■ Angel Mari Albizu Espainiako txapelketara

Angel Mari Albizu judoka elgoibartarrak eta Eibarko Kalamua gimnasioko ikasle denak, pasa den hilaren 16an, Zaragozan jokatu zen eta Espainiako Judo txapelketarako baliagarria den senior mailako "Sector Fasean", Espainiako txapelketarako pasea lortu zuen. Angelek 95 kilo azpiko mailan hiru borrokalditan aritu behar izan zuen. Hasera ona izan zuen, berak ohituta gaituen bezalaxe. Lehen bi borrokaldiak erraz irabazi zituen eta "ippon" markatu zuen bietan. Hirugarrenean ez zuen gailentzerik lortu baina hala ere, hilaren 30ean Madrilan izango den Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

■ Eski ikastaroa

Ibai gimnasioak eski ikastaroa antolatu du otsailaren 12 eta 13rako Formigaleko eski estazioan. Ikastaroaren zenbatekoa 11.400 pezetakoa da, egoitza, erromontekak eta bidaiak barne. Ekipoa aukerakoa izango da. Izena eman nahi duen edonork telefono hauetara dei dezake: 74 07 93 eta 74 27 06.

■ Federatu baimenak

Duathloi eta triathloi egutegiari dagokion frogetan parte hartu nahi duten elgoibartarrek federatu baimena izan beharko dute derrigorrez. Informazio gehiago eskuratzeko 74 19 22 telefonora deitu 2ak eta 3ak bitartean eta Javier San Martinengatik galdetu.

BARRENEK MAKETATZAILE BAT behar du egun erdiz lan egiteko

(Aurrez hiru hilabeteko prestakuntza izango da)

BALDINTZAK:

- Kazetaritza eginda edota ikasten aritzea.
- Diseinu grafikoan gutxiengo ezagutzak edukitzea.

Interesatuok bidali curriculum-ak otsailaren 4a baino lehen.

BARREN astekaria. Nafarroa Plaza, 2. 20.870 ELGOIBAR. Tel. 74 41 12

Maria de los Bueis Sanchez:

100 urte sekreturik gabe

Orain dela ehun urte pasatxo Edisonek argia asmatu zuen, duela ehun urte ikusi zuen argia lehen aldiz Maria De los Bueis Sanchezek.

Astelehenean, hilak 24, ospatu zuen bere urtebetetzea. Palenciako herri batean jaio zen, Monzon de Campos izenekoan, baina 74 urte daramatza Elgoibarren. Mende erdia bete duen gutxi izango da herrian, urte gutxiagorekin bera baino osasun eskasagoa duenik, berriz,

dexente. Sendo-sendo agertu zaigu emakumea, muleta gainean baina arin, eta oroimenak batzuetan huts egiten dion arren, piskanaka lortu dugu hitz solteak eta erantzun motzak josiz emakume honen bizitzaren une diferenteak jasotzea. Guapa guapa atera da argazkian, esaerak dioen bezala, "gazteen begietan sugarra dago, zaharrenetan argia". Zorionak Maria!

-Palenciatik Euskal Herrira. Zergatik?

- 20 urte nituela Bilbora joan nintzen monja frantsez batzuen etxera zerbitzatzera. Handik Mendarora eta Debara ondoren. Debako estazioan egunkari saltzaile bezala egin nuen lan. Han eza-gutu nuen senarra izango zena. Transportista bezala egiten zuen lan, karro batekin arraina trenera eramenez. Halaxe eza-gutu ginen, naiz eta garai hartan nik euskararik jakin ez eta senarrak apenas gaztelaririk, ondo elkar ulertzen genuen, ez zegoen hitz beharrik.

- Orain hobeto bizi gara ala lehengo garaiak nahiago al dituzu?

- Orain jendea bizio-soagoa da. Lehen jende guztiak egiten zuen lan, orain asko eta asko nagierian erori dira. Lanik ez dagoen aitzakiaz asko alpertu egin dira. Nahi ez dutelako ez dute lanik egiten.

- Zerbaiten faltarik sentitzen al duzu?

- Falta? ez, konforme nago daukadanarekin.

- Zein da horrenbeste



"Asmakuntzarik onenak garbigailua eta kotxea izan dira".

urte bizitzeko sekretua?

- Sekretua, zer esango dizut nik ba! Ez dago sekreturik. Bizitza oso normala izan da nirea, ez dut sekula ezertaz abusatu. Jan ere gutxi, askotan baina gutxi eta denetarik, barazkiak, arroza, okela, fruta asko... Orain kendu berri didate goizero hartzen nuen kafetesnea eta kola-kaoa jarri haren orde. Nire herrian mahastiak genituen eta behin edo behin probatu nuen basokadatxo bat ardo ezik,

sekula ez dut bestelako biziorik izan. Galdetu semei bestela, beti ura edan dut, ur asko.

- Nola gogoratzen dituzu gerra garaiak?

- Gogoan dut nola behin, guda zibilean, Karkizanon bizi ginela, nazionalak etorri ziren eta 48 ordutan ezer gabe utzi gintuzten, ez etxe, ez arropa, ez janari.. ezer ez! Guda garaian gaizki pasa genuen, jende guztiak bezala.

- Izan al duzu sekula afi-

zio berezirik?

- Beti gustatu izan zait asko puntua egin eta seme-alabei arropak egitea, jostea, nik neuk. Eta nik nere kontura ikasitako zerbait da, gainera, inork irakatsi gabe.

- Familian zu beste bizi izan den inor ba al dago?

- Horrenbeste ez, baina ahizpa bat daukat 89 urte dituen, 92 urtekin hil zen beste bat...

- Ezagutu dituzun aurre-rakuntza guztien artean, zein izan da onena zure ustez?

- Alde batetik garbigailua, erropak makinan sartu eta kitto! Lehen eskuz garbitu behar genituen, nazkatu arte. Bestetik kotxea, nire herrira nahi dudanean bueltatzeko aukera ematen didalako.

- Eta hegazkina?

- Ene! Hori ez da niretzat, altuegi doa.

- "Presumida" hoietakoa izan al zara?

- Ez, sekula ere ez! Gaur egun krema milagrosoen kontu asko daude, baina zatarra denarentzat ez dago milagrorik!

Jasone Osoro

BATA ala **BESTEIA**

Jose Mari Etxaniz
"Sabio"



● **Jose Mari ala "sabio"?** ▶ Jose Mari.

● **Zergatik Sabio?** ▶ Lagun bat hasi zen horrela deitzen memoria ona neukalako eta apustu batzuk irabazi zituen neri esker. Harrez geroztik, denek deitzen naute horrela.

● **Teoria ala praktika?** ▶ Praktika.

● **Zeinetaz fidatzen zara gehiago, zutaz ala liburuetaz?** ▶ Normalean, ni baino gehiago jakiten dute liburuek.

● **Elgoibartik kanpo bizitzera joango al zinake?** ▶ Borondatez ez.

● **Zinea ala telebista?** ▶ Ez bata eta ez bestea.

● **Egia al da "a buen entendedor..."?** ▶ Bai noski.

● **Rubiak ala morenak?** ▶ Denak.

● **Futbola, korua ala seiluak?** ▶ Korua.

● **Edaririk gustokoena?** ▶ Bermuta. Bueno, "destornilladorea", baina ez dut edaten.

● **Zein gonbidatuko zenuke afaltzera?** ▶ Denbora alperrik galtzea izango litzateke.

● **Zure defekturik handiena?** ▶ Askok dauzkat.

● **Kirola, egin ala ikusi?** ▶ Ikusi.

● **Konpainiarik onena?** ▶ Nire ama, liburu on bat, diska on bat; momentuaren arabera.

● **Eta txarrena?** ▶ Pelmaren bat.

● **Zer daukazu mesilan?** ▶ Ezertarako balio ez duten gauza asko eta gainean liburu mordo bat.

● **Zergatik irteten zera txarangarekin irailaren 1ean?** ▶ Gustatzen zaidalako eta detaile majoa iruditzen zaidalako. 23 urte dira irteten naizela eta ez dut aldatuko.

● **Zer da kirola zuretzat?** ▶ Gizabanako batek edo talde batek bere inteligentzia, abilitate edota indar fisikoaren bidez parte hartzen duten lehia litzateke, baina inoiz ez motore bat tartean dagoenean.

● **Lentilak jarriko al zenituzke?** ▶ Ez. Ez nintzateke begi barruan jartzeko kapaz izango.

● **Zer deritzozu Elgoibarko "bakalao" saltsaz?** ▶ Bakailoa pil-pilean ere ez zait gustatzen.

Justo Juaristi

(Artazo II)



● 15 urte zituela hasi zen "primera"ko partiduetan jokatzeko.

● Juan de Irigoien-ek zera dio Sallobenteko pilotariak: "Psikologia bereziagatik, ikerketa merezi duen pilotaria da. Hotza eta apatikoa, ez zen ikuslegoa eta borrokaren aurrean kikiltzen den horietakoa. Sarritan jokuaren ikusgarritasunaren kalterako izaten zen hoztasun hau".

● Bere ezaugarri fisikoek (altua, arina, beso luzea...) pilotari erraz emateko aukera ematen zioten.

● Bere pilotakadak parabola formako kurba egiten zuten, atzeko jokurako aproposa zena eta txokora joateko joera zuena. Izakera lasaia arerioaren jokua aurreikusteko aukera ematen zion.

● Anekdotak gisa aipatu, 1928.ean, Artazo II.ak ezkerrez, eskumaz jokatu zuen Gernikako Marino pilotari ezagunari irabazi ziola.

OINETAKOAK
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.
Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak
Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 29

12,00: Elgoibar - Hernani (Infantilak)

Igandea 30

10,00: S.D.Eibar - Beasain

12,00: Eibar Urko - Getxo

(Ohorezko dibisioa)



ESKUBALOIA Kiroldegian

Larunbata 29

16,00: Elgoibar - Mundaiz (Kadeteak)

17,30: Elgoibar - Baztangoz (Neskak)

Igandea 30

12,15: Elgoibar - Ormaiztegi (Jubenilak)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Ostirala 28

22,30: Elgoibar - Centro Extremeño

(2. maila)

23,30: Elgoibar - Indarra (1.maila)

EMAITZAK

ESKUBALOIA

Bidebieta 25 - Elgoibar 13 (Neskak)

Bizkor 28 - Elgoibar 26 (Jubenilak)

Don Bosco 16 - Elgoibar 27 (Kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Cactus Olloko 8 - Elgoibar 2 (1.maila)

Casa Amalur 3 - Elgoibar 2 (2. maila)

FUTBOLA

Elgoibar 1 - Orereta 2 (Infantilak)

Elgoibar 1 - Urola 5 (Kadeteak)

Haundi 0 - Durango 2

Elgoibar 0 - Urola 1 (2. erregionala)

Elgoibar 0 - Dunboa 1 (Neskak)

Elgoibar 0 - Euskalduna 4 (Jubenilak)

XAKEA (2. erronda)

Elgoibar B 2 - San Andres 2 (2. maila)

Eibar 2 - Elgoibar A 2 (2. maila)

Elgoibar A 1 - Eibar 3 (3. maila)



Oihana Chico:

"8 urtekin aitarekin joaten nintzen lasterketetara"

■ **Zer moduz ibili zara azken lasterketetan?** - Azken lasterketa Antzuolan izan dut eta seigarren gelditu naiz. Beste bat Irunen korritu nuen eta 26.na gelditu nintzen. Beste lasterketa batzuk ere egon dira baina belauneko arazoak direla eta erretiratu egin nintzen. Igandean Idiazabalen korrituko dugu. Ikusi behar zer egiten dugun!

■ **Zenbat denbora daramazu atletismoan?** - 8 urte nituela aitarekin joaten nintzen lasterketak ikustera. Ego-Tokirekin iaz hasi nintzen korrika egiten.

■ **Entrenamenduak gogorrak al dira?** - Astelehen, asteazken eta ostiraletan entrenatzen dugu Mintxetan, pista beltzean edo Kiroldegian 7etatik 8etara bitartean eta entrenatzailea Dani Rino da. Lasterketa dagoenean gogorrago entrenatzen dugu.

■ **Lasterketetan erraztasun handiz korritzen duzula esan digute...** - Keba. Orain gaizki nabil belaunetik baina iaz hobeto ibili nintzen.

■ **Zer lasterketa korritu behar dituzu orain?** - Saikatzten bagara Gipuzkoako txapelketara joango gara eta ahal bada Euskadikora. Aurten puntu asko

- Adina: 11
- Atleta: Sandra Mayers
- Mailak ala praka motzak korrikarako? Praka motzak, erosoagoak dira.
- Hobbyak? Anaiarekin dantza egitea.



lortu beharko ditut Euskadiko txapelketan parte hartzeko. Hauek bukatutakoan inguruko herrietan antolatzen diren kros herrikoietan arituko naiz.

■ **Korritzeko asfalto ala lurra nahiago duzu?** - Herriko kaleetan zehar korritzen diren krosak gustatzen zaizkit gehien. Lokatzean ez naiz ondo konpontzen, iltzedun zapatilekin ondo korritzen da baina nahiago dut asfaltoa.

■ **Distantzia edo lasterketa faboritorik ba al daukazu?** - 1.000 metro ingurukoak atsegin ditut. 1.500 metrotako lasterketa da agian niretzako egokiena. Lasterketa guztiak gustatzen zaizkit.

■ **Aurrera begira korrika jarraitzeko asmorik?** - Bai, ahal dudan arte jarraitu nahi nuke. Nagusitan

korrika egitea nahiko nuke Perea, Revuelta eta horiek bezala.

■ **Beste kirol egiten al duzu?** - Eskolarteko jokuetan saskibaloia, eskubaloia eta futbola. Hauetaz gain, boleibola ere gogoko dut.

EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak,
alfabetatze eta EGA


AEK EUSKALTEGIA
Plaza Txikia. ☎ 74 13 32

publizitatea
publizitatea
publizitatea
publizitatea

74 41 12



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



■ ■ Azken partiduen atarian, jendetza biltzea espero dute.

Txapelketaren lehen fasea bukatzeaz dago eta liga jokatzeko aukera ematen duten lehen lau posturen bat lortzeko lehia gogorra da. Bi taldeen egoera, hala ere, ezin daiteke parekatu. Alde batetik, A multzoan gauzak nahiko garbi dadude eta Mimox, Karkis, Arroak eta Kosaskos taldeek gainontzekoei ateratzen dieten abantaila nahikoa izan beharko litzateke aurrera jarraitzeko. B multzoa da, ordea, interesgarriagoa gertatzen ari dena, izan ere, sei taldek lor dezakete hurrengo faserako txartela. Seien artean lau puntutako diferentzia besterik ez dago eta talde bakoitzak jokatu behar dituen hiru partiduak erabakiorrak gerta litezke. Are gehiago, sei talde hauek beraien artean jokatu behar dute eta emaitza horien garrantzia izugarria da. Beraz, A multzoan gauzak garbi eta B multzoan lau taldek aurrera egiten badute ere beste biek kopako txapelketa jokatzearekin konformatu beharko dute.

Edu Sanz

SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

A Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. MIMOX	8	7	1	0	15
2. KARKIS	8	6	1	1	13
3. ARROAK	8	5	2	1	12
4. KOSAKOS	7	6	0	1	12
5. CHELSEA	8	4	0	4	8
6. PEDRUSCO	8	4	0	4	8
7. HUNDE VERBOTEN	8	3	1	4	7
8. LANBROA	7	2	3	2	7
9. XIRULA	8	1	3	4	5
10. BERROGEI DURO	8	2	0	6	4
11. ORAIKO KAFE	8	1	0	7	2
12. RESTO DEL MUNDO	8	0	1	7	1

B Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1.G. GARCIA	8	6	2	0	14
2. DINAMO KALIMOTXO	8	6	1	1	13
3. UNIV. DE CHILE	8	5	1	2	11
4. AMETSA	8	5	1	1	11
5. BAR ROKE	8	5	0	3	10
6. TXIRRISTAKA	8	4	2	2	10
7. KING-KONG	8	3	1	4	7
8. SPORTING	8	2	2	4	6
9. LAGUN TOKI	8	2	2	4	6
10. LUCKY LUKE	8	1	2	5	4
11. GORRI BELTZ	8	1	1	6	3
12. ALDAVAS	8	0	1	7	1

G TALDERIK GOLEGILEENA
Mimox (59 gol)
Arroak (55 gol)
Kosakos (41 gol)

L GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA
Mimox (5 gol)
Karkis eta G. Garcia (11 gol)

A GOLEGILERIK ONENA
J. Romero (G. Garcia) 24 gol

K

*** URTARRILAK 30 ***

10:00 Chelsea - Xirula	kosakos - Arroak	
11:00 Pedrusko - Lanbroa	Hunde verboten - Mimox	
12:00 Karkis - Resto del Mundo	Berrogei Duro - Oraiko kafe	

*** OTSAILAK 6 ***

10:00 G. Garcia - Lucky Luke	Aldavas - Ametsa	
11:00 Bar Roke - Sporting	Dinamo Kalimotxo - King-kong	
12:00 Lagun Toki - Txirristaka	Univ. de Chile - Gorri-Beltz	

*** OTSAILAK 13 ***

10:00 Chelsea - Berrogei Duro	Resto del mundo - Lanbroa	
11:00 Arroak - Xirula	Mimox - Pedrusko	
12:00 Karkis - Kosakos	Oraiko Kafe - Hunde verboten	

*** OTSAILAK 20 ***

10:00 Garage Garcia - Bar Roke	Ametsa - Lagun Toki	
11:00 Lucky Luke - Gorri Beltz	Txirristaka - Dinamo Kalimotxo	
12:00 King-Kong - Univ. de Chile	Sporting - Aldavas	



Taupada: taula gainean bihotz kolpeka

Taupada antzerki taldea aspaldi ereindako haziaren fruitu da. Baziren Elgoibarren antzerki inguruan mugitzen ziren batzuk. Lourdes Iriondoren obra bat egin behar zutela eta, mimoan aritutako Eurne Lasari deitu zioten. Beranduago, berak eta beste elgoibartar batzuek, banandu eta antzerki talde propioa sortu zuten.

H aseran "Ipar" izena jarri zioten taldeari. Izen horrekin ez zuten antzezlanik egin eta denbora gutxira, gainera, zenbaitek alde egin zuten. Gelditu zirenek, definitiboek, Taupada sortu zuten. 1978. urtearen buelta zen eta lehen obra estreinatu zuten: "Oihu gorrak". Orditik gaurdaino, beste bost lan taularatu dituzte eta aurten beste bat estreinatuko dute. Taldeak burututako obren zerrenda:

- "Oihu gorrak" 1978
- "Liliput" 1980
- "Aik, Maik eta Zeferina" 1982
- "Behin batean Jujuju..." 1984
- "Ponpa eta Mobis" 1986
- "Eta etxeok zer moduz?" 1988
- "Zaldi bat, bi kotxe eta 30 ile" estreinatzeke.

Taldeak dozena bat kide bazi-tuen ere, ikasketak etab. zirela eta, askok, deskolatu eta taldea laga zuten. Muntaiaz muntai, kideak gutxitzen joan ziren. "Aik Maik eta Zeferina" lana antzeztu zuten garaian sei baino ez ziren gelditzen.

"Behin batean Jujuju..." plaza-



■ ■ "Eta etxeok zer moduz?" antzezlaneko une bat.

ratu eta gero, gaur egun Taupada osatzen duten bi kideek "Ponpa eta mobis" estreinatu zuten. Gainontzekoek Ekekei antzerki taldea osatu zuten eta ordudanik Jose Mari Larrañaga eta Eurne Lasak daramate antzerki taldearen zama.

Taupada taldeak, haurrentzako antzerkia egiten badu ere, beraien publikoa adin guztietakoa dela esan digute Eurnek eta Jose Marik. Eskuartean duten antzezlana, "Zaldi bat, bi kotxe eta 30 ile" orain arte egindako lanik sakonena da beraien esanetan. Rodariren ipuin batean oinarrituta, Eurne eta Jose Marik 10 pertsonaia antzezten dituzte. *Taun-Taun* taldekoen proposamen bati kaso eginez, panpin batzuek pertsonaiak izango dira. Eurne eta Jose Mari ipuin kontalariak dira eta bizitza ematen diete panpinei. Antzezlana Diego Murciano zuzentzen ari da. "Zaldi

bat..." ek ez dauka eszenografia handirik eta musika alorrean Carlos Balseiroren laguntza izan dute. Estreinaldia martxorako egitea espero dute eta Elgoibarren Herriko Antzokia bukatu artean ez dugu lana ikusteko aukerarik izango.

Taupadak, antzerki taldeko ekintzekin konpajinatu, antzerki tailerraren barruan hainbat ikastaro eta antzezlana burutu izan ditu. Azken urteotan urtero prestatu izan dute lantxoren bat eta duela hilabete eskas, arrakasta handia izan duen malabar ikastaroa antolatuta zuten.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1978

Arduradunak: Eurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga

Kideak: 2

Emanaldiak urteko: 20

Lokala: San Roke z/g

Classy

San Frantzisko 56. ☎-FAX 74 02 40 ELGOIBAR

- ★ OPARIAK ★ FOTOKOPIAK ★ ESKOLARAKO MATERIALA
- ★ FAX PUBLIKOA ★ ENKUADERNAKETAK
- ★ TESTU ITZULPENAK INGELESERA



Gurasoak hezitzen

Pasa den astetik martxan dago Elgoibarren Guraso Eskola. Proposamena "Hezitzen" izeneko elkartetik etorri da. Elkarte honek programa ezberdinak burutzen ditu eta tartean, gurasoen heziketa. Udaleko Ongizate Zerbitzuak, eta konkretuki, Drogomenpekotasunen prebentziorako zerbitzuak gurasoak hezitzeko eskola sortzeko proposamena bere gain hartu eta martxan jarri du.



■ Guraso Eskolan izena eman duten gehienak emakumeak dira.

Guraso eskola-ren baitan hiru talde sortu dira. Bat pasa den asteen hasi zen eta beste biek aste honetan izan dute lehen bilerara. Bertako partaideak OHOn ikasten duten seme-alabak dituzte. Gutxiengo eta gehiengo kopurua ezarri da taldeetan, 20 eta 30 pertsona bitartekoa. Eskolan parte hartzen duten guraso kopurua 85 ingurukoa da. Kopuru hau, ordea, ikastetxeetako gurasoen %10a baino ez da. Eskolako partaide gehienak emakumeak

dira, oraindik ere hezkuntza emakumeen esku dagoenaren adierazgarri.

Klaseak emateaz "Hezitzen" elkarteko

Seme-alaben hezkuntzarekin lotuta edozein gairi buruzko argibideak emango zaizkie gurasoei.

hiru teknikari arduratzen dira. Alde teoriko bat egon arren, taldeko lana lantzen dute batez ere. Gurasoek sarritan irakasleen eskuetan lagatzen dute seme-alaben

hezkuntza. Helburu nagusia hezkuntza horren ardura, guraso diren heinean, berreskuratzea litzateke. Seme-alaben hezkuntzarekin lotuta edozein gairi buruzko argibideak emango zaizkie gurasoei. Landuko diren gaiak hauexek izango dira: gurasoen eragina seme-alabekiko, seme-alabek euren buruekiko duten irudia, seme-alaben jokabide ezberdinak, elkarrizketaren garrantzia prebentzio neurri gisa, atsedean eta aisialdiaren garrantzia etab.

Aintzindariak

Herrian egon izan

da lehenago ere guraso eskolarik. Garai batean Ikastolak izan zuen guraso eskola bat eta Haizeak ere antolatu zuen gurasoei zuzendutako eskola. Aintzindari hauek ikusita, "Hezitzen" elkarteak galdeketa bat egin zuen herriko OHOk ikastetxeetako gurasoen artean. Eran-tzunen arabera, gaiak, egunak eta ordutegia ezarri ziren eta lehendabiziko klaseak ematen hasi. Eskolako bilerak Kultur Etxean egiten dira eta hilean behin elkartuko dira ikasturtea bukatu arte, hau da, ekaina arte.



Urtarrilaren 9an hil zen SANTIAGO KORTABERRIA OSOROn emazteak eta ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, Santa Ageda abesbatzan parte hartu zenutenoi eta samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.

28 OSTIRALA

17,00 PLAY BACK ETA BERTSO JAIALDIA

Bertsolariak: Estitxu Arozena, Jokin Sorozabal, Jon Maia, German Meabebasterretxea, Iker Agirre eta Joseba Lasagabaster.
Gai jartzailea: Izaskun Elizburu
✓ Lanbide Heziketa Eskolan.
Antolatzailea: LHI.

19,00 IKASTOLAKO HAURREN JAIALDIA

✓ Kiroldegian

22,15 ZINEA "Kika"

Zuzendaria: Pedro Almodovar
Aktoreak: Veronica Forqué, Alex Casanova eta Victoria Abril.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

30 IGANDEA

10,30 TXISTU KALEJIRA

Txistulari Udaltaldea eta Inazio Bereziartua Musikaeskolako ikasleak.

13,00 TXISTU KONTZERTUA

Txistulari Udaltaldea eta Inazio Bereziartua Musikaeskolako ikasleak.
✓ Udal arkupetan.

19,30-22,15 ZINEA "Kika"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

31 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Kika"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

2 ASTEAZKENA

18,30 GURASOEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA

"Nola hitzegin seme-alabekin drogei buruz"
BBB eta LHiko ikasleen gurasoei zuzendua.
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Drogomenpekotasunen prebentziorako Zerbitzua

3 OSTEGUNA

18,30 GURASOEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA

✓ Kultur Etxean

4 OSTIRALA

22,15 ZINEA


"Los visitantes" (J.M. Poiré)
✓ Udaletxeko Biltzar aretoa
Antolatzailea: Ongarri zine kluba

ZINEA

"Kika"

Andrea "Caracortada", telebistako aurkezle oker bat, Kikaren bortxaketarekin gora eta behera dabil buru belarri. Kika makilatzailea da lanbidez, eta gutxitan etsitzen duena. Bere senargaia Andrearen amorantea izan zen.
Pedro Almodovar-en azken filmea pertsonaia eta generoen arteko collagea da. Bodebiletako komedia eta thriller-aren artekoa, telebistako "reality show"en zaborrean bilatzen duena.

ZINEA



JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitartre, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

Etxebizitzak

Baserri bat hartuko genuke
Tel.: 76 62 64. Imanol

Etxebarrin etxebizitza berri
bat dago salgai. 87 m²
Sukaldea, 3 logela, egongela
bat, 2 bainu gela, ganbara,
terraza eta garajea.
Tel.: (943) 70 12 71

Pisu bat salgai. Ubitarte 11.
zenbakian.
Tel. 74 12 07
(Iñaki - Mertxe)

Etxe bat saltzen dut Urasandin.
1. pisua.
Tel.: 75 51 69

Etxe bat daukat alokatzeko.
Altzariak dauzka. Pedro Migel
Urruzuno kalean (Olatz altzari
denda ondoan).
Tel.: 74 08 09
3,30etatik - 7,30etara.

Lana

Banaketa egiteko neska bat
behar dugu Salegi pastelerian.
(Salegi)
74 28 75 Jose Ramon

Matematika, fisika eta kimika
klaseak ematen dira BUP, COU
eta FP. Gaztelaniaz.
Javier Telf: 74 13 11

Salerosketak

Ekonomika bat saltzen dugu.
Berria. Deitu lanordutan.
Tel.: 74 16 38 Ainhoa

Gasezko estufak erosiko
nituzke. Telf: 74 08 95 Maite

OPEL CORSA GT 3 ate SS-
AH saltzen da. Tel.: 74 01 17

Ford Fiesta 1.400 CLX bat
saltzen dut. 4 urte. SS-AF.
Tel.: 74 07 11 Tomas

Frigorifiko bat erosiko nuke.
Ate individualdun kongeladore
txiki batekin. Tel: 74 13 38
Eguerdian deitu

Bigarren eskuko Renault 12
Bi- 1988 Y salgai.
Prezio egokia.
Tel.: 74 41 32 Fernando

San Roke auzoan garaje bat
daukat alokatzeko.
Telf: 74 33 78

Bestelakoak

Hilaren 21ean, ostirala, lepoko
painelu bat galdu nuen
Andonegitarren etxe parean.
Norbaitek aurkitu badu
mesedez deitu.
Tel: 74 17 80 Mari Tere


66an jaio eta Pilar ikastetxean
ikasi zutenak afari bat egingo
dugu. Afaria Txarridunan
izango da martxoaren Sean eta
izena emateko azken eguna
otsailaren 25a izango da.
Tel.: 74 04 90 - 74 07 95
74 39 67

Urrezko katea eta medaila
aurkitu ditut Mintxetan.
Deitu 74 19 21 zenbakira

Abenduaren 29an, elizako
arkupeetan mendiko txamarra
urdin bat desagertu zitzaidan
7ak eta 7,15 bitartean. Aurkitu
duenak dei dezala
74 12 61era. Joseba

Abenduaren 23ko arratsaldean
urrezko domina galdu nuen
Arrillaga eta San Bartolome
kaleen artean. Inizialak:
aurrean A.G. eta atzean ARH +
74 10 68 Ane

Karitasek familia bati emateko
erropak gordetzeko armairu bat
behar du. 74 15 09 / 74 12 57



ESKEINTZA BEREZIAK

*Erakusketa aldaketa
dela eta
era guztietako
sofa eta tresiloetan
BEHERAPENAK*

*Siloi zaharra ekartzen baduzu
5.000 pta jasoko dituzu !!*

EL ALMACEN DE ELGOIBAR

Altzariak



*Erosi ala ez
zatoz gu bisitatzera!*

Urasandi, 2. Tel.: 74 29 41 ELGOIBAR




Eibarmoto

Motorren salmenta
eta konponketa



94ko MOTORRAK: Errepidea, Kross, Trial, ...



**2. eskuko
motorretan
aukera
handia**

Zatoz !!

2. eskuko piezak % 50 merkeago

Matxaria, 2. TEL-FAX: (943) 11 33 32 - 20 600 EIBAR